

EB-KO PRESIDENTETZA

«Aznarren presidentetza terrorismoarena izango dela esatea lekuz kanpo dago orain»

IRTENBIDEA

«Indarkeriaren iturburuan dauden aldarrikapenei heldzea da bide eraginkor bakarra»



kok. Finean, ez al da hori eskubide murrizketa?

Gai horrek asko arduratzen gaitu liberal demokratik, Europako Batasuneko estatu guztietan ez baitago justizia estandar bat. Berdeek eta Europako Aiantza Librearen taldeak Parlamentuan etengabe azaltzen duten argudioa da hori: «Guk ez dugu Europako atxilotze eta berehalako entrega agindua onartuko, estatu guztietako sistema judizialek eskubideei dagozkien berme guztiak eman arte». Ni ez nago horrekin ados. Agindua lehenbailehen onartu beharra zegoen, terrorismoari aurre egiteko. Horrekin batera, jakina, Europako eredu judizialak bateratu egin behar dira, homologatu. Ez dezagun ahantz askatasun, segurtasun eta justizia gune bakarra ari garela eraikitzen European. Askatasuna eta justizia sendotu behar ditugu. Ez diezaiegun utz estatuei soilik segurtasunaren aldea garatzen, beste biak ahantzita.

■ Horieta estatu batean, Espainian, Amnesty Internationalek bere txostenetan kezka azaldu izan du, han izan diren tratu txar eta tortura salaketan aurrean.

Amnesty Internationalek ikaragarri lan serioa egiten du munduko bazter guztietan, polizia-aren tratu txarrak argitara ekartzen. Txosten horiek oinarri tinkoak izatea espero dut, eta baita ere politiko demokratikoei haien esku dituzten tresnak erabiltzea gehiegikeria horiek geldiarazteko. Gogoan dut Espainiako kasu bat, oso ezaguna European: bi gazteren heriotzen arduraduna zelakoan, Guardia Zibileko jeneral bat epaitu zuten. Horrelakoak argitu egin behar dira, eta herritarrek justizia egin dela ikusi behar dute.

■ Espainiako Gobernuak uztaillera arte hartu du bere gain Europako Batasuneko presidentetza. Zer deritzozu Jose Maria Aznarrek denbora horretarako Bruselara ekarri duen lehentasunari, alegia, indarkeriaren aurkako borrokaren lehentasunari?

Ulertzekoa da, Espainian herritarrek hiltzen dituzte haien pentsaera dela eta. Nire iritzian, hala ere, Espainiako Gobernuak trena galdu du. Espainiaren presidentetza terrorismoaren presidentetza izan dela esatea lekuz kanpo dago orain. Joan den seihilekoan, Belgikako presidentetzaren lorpen handienetakoa izan baita, hain zuzen, legeak bere lekuan jartzea terrorismoaren arazoa konpontzeko. Jakina badirela oraindik egin beharreko gauzak, tartean polizia-ko koordinazioa hobetu, baina hori Belgikak egindakoa osatzea baino ez da. Iduritzen zait Espainiako presidentetzak Europako Batasunak aurrez aurre duen erronka nagusia hartu behar lukeela lehentasun moduan: Europako Batasunaren zabalkuntza prozesua, alegia.

■ Aldiz, terrorismoaren auzia lehen mailara ekarri izanagatik Espainiako popular eta sozialistek babes osoa eman diote Aznarri. Robert Evans laboristak dio hori ulergarria dela, alderdi horiek sufritzen dutelako ETA-ren indarkeria zuzen-zuzenean, baina, era berean, horrek agerian uzten duela Aznarrek etxeko arazo bat kon-

«Eskualdeei ahotsa eman behar diegu Europako ministro kontseiluetan»

M.R. | BRUSELA

Europako liberal demokratik taldeak inoiz ez du izan Estrasburgoko Parlamentuan egun duen adina botere. Talde txikia izanik, EPP Europako Alderdi Popularrarekin izenpetutako akordioari esker erakunde horren buruan jarri dute Pat Cox irlandarra, Nicole Fontaine frantziarrari lekukoa hartuta. Liberalek, estatuez haratago, Europako eskualdeen papera aldarrikatzen dute.

■ Liberal demokratek 53 kide dituzue Europako Parlamentuko 626 diputatu artean. Bi erraldoi, Europako Alderdi Popularraren eta Alderdi Sozialistaren erdian zaudete. Talde txiki batek hobeki defendi al ditzake gutxiengoaren interesak?

Jakina. Parlamentua ezker-eskubi zatitua dagoenez, geure botoak erabakigarriak dira. Horrek erakundearen agenda zehazteko boterea ematen digu. Aukera interesgarria.

■ Cox presidentek lehen hitzaldian esan zuen bezala, Europaren aniztasuna defenditzeko aukera?

Aurrekoan Jose Maria Aznarri esan nion bere egitasmoa apur bat «gatzelau» ikusten nuela. Izan ere, Madrildik, Espainiako Gobernuak bazterrean uzten baitu, ahaztuta, eskualdeen ahotsa. Danimarkan edo Herbehereetan ez dago eskualdeei buruzko eztabaidarik, baina Europako estatu handienak oso anitzak dira, eta aniztasun horri indarra eman behar zaio erakundeetan. ELDR taldean denok bat gatoz European botere deszentralizazioa defenditu behar dela esaterakoan, eta herri edo eskualdeei ahotsa eman behar diegula Europako Batasuneko ministro

kontseiluetan. Eskualdeek Europako erabaki guneetan egon behar dute.

■ Eta zer egin beharko luke estatuek gabeko nazioek eta eskualdeek Europaren eraikuntzan?

Argi dago, XIX. mendeko ideia militar eta industrialak, nazio-estatuaren ideia horrek, ez duela balio egun gobernuak dituzten erronkei aurre egiteko. Europako Batasuneko kultura eta nortasun guztiak askatasunean loratzeko bidea jorratu behar da. Era berean, horrek emanen lioke sendotasun handiagoa Europako Batasunari.

■ Sarri martxan jartzeko den Konbentzioan, Europaren etorkizuna erabakiko duen erakunde horretan izanen al dute lekuri eskualdeek?

Hori espero dut bederen.

■ Pat Coxek presidente moduan egin zituen lehen hitzak irlandesez egin izanak irudikatzen al du zuen hizkuntza gutxituen aldeko konpromezua?

Bereziki zaila da hizkuntza politika European. Errealitatea da hizkuntza ofizialez landa beste hizkuntza anitz ditugula Europako Batasuneko. Era berean, presiopean gaude, izan ere, Europa Ekialdeko hainbat estatu gurekin bat egiten dutenean, erakundeetan erabiltzen dugun hizkuntza kopurua murriztu beharko dugu. Ni ikuspuntu praktikoko baten aldekoa naiz: estatuetan ofizialak diren hizkuntzetan aritzeko aukera izan behar dugu denok. Denok ingelesez hitz egin behar genukeela esatea oso inperialista litzateke. Indar handiagoa jarri behar genuke hizkuntza gutxituen iraupenean. Europaren ondare kulturala baitira euskara edota Eskoziako gaelikoa.

KULTUR ANIZTASUNA

«Europako Batasuneko kultura eta nortasun guztiak askatasunean loratzeko bidea jorratu beharra dago»

pondu nahi duela Europako presidente izanda. Iritzi horretakoa al zara?

Nik ez nuke esanzen Aznar jauna Espainiako arazo bat Europako oholtzara ekartzen saiatzen ari denik. Ordea, jakina, egia da horrelako arazoak errazago konpon daitezkeela eremu za-

balago batean, estatutik kanpora, nazioartean. Esaterako, Ipar Irlandako egoerak hobera egin du, zalantzarik gabe, Europako Batasuneko esku hartu duen unetik. Ipar Irlandako garapen ekonomikoari bultzada eman baitzaio Bruselatik, eta areago, Irlandako Errepublika eta Erre-

AZNARRI KRITIKA

«Haren egitasmoa 'gatzelar' samarra iruditu zitzaidan, bazter uzten baitu eskualdeen ahotsa»

suma Batuko Gobernuak elkar-gune bat eman die Europako Batasunak, ohiko bilerak egiteko gunea, elkarren alboan lan egiteko lekua... Eta Europak bultzatu ditu, neurri handi batean, Dublin eta Londresko agintariak Ipar Irlandako gatazka konpontzera. Aznarrek zentzu horretan hartuko balu Europako Batasunaren esku-hartzea Euskal Herriko gatazkan, hau da, arazoak konpontzeko ekarriko balu Euskal Herriko gaia Bruselara, orduan, hori oso begi onez ikusiko nuke. Albiste ona litzateke.

■ Baina ez dirudi Aznarrek bide hori hartu nahi duenik, Espainiako Gobernuak elkarriketaren aukera arrazabaztertzen duen heinean.

Agintari demokratikoenak oso zaila da indarkeria erabiltzen dutenekin hitz egitea, indarkeria horrek helburu politikoak dituenean. Horixe izan da urte luzez gobernu demokratikoen arazoa. Hala ere, nik uste dut urteek erakutsi dutela terrorismoarekin amaitzeko bide eraginkor bakarra ez dela indarkeriari aurre egitea soilik, baizik eta fenomeno horretaz haratago begiratzea. Indarkeriaren iturburuan dauden aldarrikapenei heldu behar zaie. Nik ez dut oso gertutik ezagutzen Euskal Herriko egoera, baina Espainiako Gobernuak inoiz ez du arazoa konpontzeko adimen militarra eta konponbide militarrik oinarri hartuta; aldiz, emozio adimena erabili behar da gatazka politikoak konpontzeko, eta irtenbide politikoak erdietsi behar dira. Horrela baino ez du galduko terrorismoak gizartearen altzuan duen babesa.

■ Proposatzen duzun bide hori ez al da batera ezina estatu batek legezkoak diren taldeak terroristen zerrendan sartu nahi izanarekin?

Nik uste dut ez litzatekeela batureraz Batasuna bezalako alderdi politiko bat talde terroristen zerrendan sartzea. Izan ere, zerrenda horren helburua talde horien diru iturriak izoztu eta bestelako bideetatik aurka egitea baita. Hori ezin zaio aplikatu herritarrek hautatutako alderdi politiko bati. Hala ere, nire kritika nagusia zera da: gobernuak zerrenda hori egin nahi izan dutela Europako Parlamentuaren iritzia kontuan hartu gabe, ministro kontseiluen bi-